# UNITATE DIDAKTIKOA

*ERROMATARREN ARRASTOAK OINEN AZPIAN*



## FILMA IKUSI AURRETIK:

**1.** Filmaren fitxa teknikoa irakurri: Programaren izenburua, zuzendaria, aurkezlea, ekoizlea...

Nork egiten du **Teknopolis** saioa?

.....

.....

.....

.....

Zer da **Elhuyar Fundazioa**?

.....

.....

.....

.....

Elhuyarrek egiten duen beste lanen bat aipatu ahal duzu?

.....

.....

.....

.....

Zenbat saio egin dituzte?

.....

.....

.....

.....







## FILMA IKUSI ONDOREN:

**1.** Zein garai izan ziren Oiasso herriaren oparoenak? Zein da erantzun zuzena?

- ◯ **K.a. 20 eta 16 mendeen artean**
- ◯ **K.a. I eta K.o. IV mendeen artean**
- ◯ **K.o. I. eta III. mendeen artean**

**2.** Egia al da batez ere, emakumeek aurkitu zutela Oiasso hirian dauden aztarnarik garrantzitsuenak? Ezagutzen duzu Oiassoko portua aurkitu zuen arkeologoaren izena?

**3.** Oiasso museoaren sarreran dagoen mapak erakusten du hiri honek, Oiassok, erromatar komunikabideetan zuen garrantzia:

- **Non kokatzen da Oiasso?**
- **Geografikoki zerk inguratzen du?**
- **Beste herriren baten izena ezaguna egin zaizu?**
- **Oiasso ospetsua zela uste duzu?**

**4.** Herriez gain, zer erakusten du batez ere mapa honek?

- ◯ **Landareak**
- ◯ **Errepideak**
- ◯ **Mendiak**









**5.** Zertan lan egiten du Arkeolan Fundazioak?

- ◯ **Arkeologia indusketak egin eta ondarea zaintzen?**
- ◯ **Erromatar moduko etxeak eraikitzen?**
- ◯ **Arkeologia ikastaroak antolatzen?**

**6.** Zertan da Zohartze Galan aditua?

- ◯ **Zeramika datatzen**
- ◯ **Dendrokronologian**
- ◯ **Larrua ikertzen**

**7.** Zer da Arkeologia Urbanoa?

**8.** Irunen erromatar aztarnez gain badago beste garai bateko aztarnarik? Zein garaitakoa?

**9.** Jaime Rodriguez Salís, irundarra zen, berari esker aurkikuntza ugari egin ziren Irunen. Berak egindako zein aurkikuntza azpimarratuko zenuke:

- ◯ **Erromatar antzokia**
- ◯ **Erromatar ospitala**
- ◯ **Erromatar nekropolia: Xantalen ermitako hilerri erromatarra**

**10.** Erromatarren aurretik jenderik bizi zen lurralde hauetan?

**11.** Non bizi ziren?

**12.** Inzibilizatuak edo basatiak ziren?

**13.** Zer nolako harremana zuten erromatarrekin?

- ◯ **Erromatarren ohiturak bereganatu zituzten**
- ◯ **Ala erromatarrak gorrotatzen zituzten**








**14.** Zer ziren Termak?

- ◯ **Polikiroldegia**
- ◯ **Antzokia**
- ◯ **Futbol zelaia**

**15.** Hiru girotako gelak zeuden Oiassoko Termetan. Ezabatu egokiak ez direnak:

| | |
|---|---|
| **Epela** | **Beroa** |
| **Kirxkaltzekoa** | **Burbuilekin** |
| **Ur-azpikoa** | **Hotza** |

**16.** Badakizu zein sistema erabiltzen zuten termetako gelak berotzeko?

- ◯ **Hipokaustoa**
- ◯ **Argi indarra**
- ◯ **Ur natural beroak**

**17.** Ba al zegoen igerilekurik? ◯ **Bai** ◯ **Ez**

**18.** Zergatik uste duzu termen aurkikuntza garrantzia duela Irunen?



**19.** Zergatik etorri ziren erromatarrak Oiassora?

- ◯ **Neska.mutil guapoz josita zegoelako?**
- ◯ **Surfa egiten zutelako?**
- ◯ **Inguruko meategietan zilarra zegoelako?**

**20.** Zilarra zertarako erabiltzen zuten?

**21.** Portua oso aurkikuntza garrantzitsua izan zen. Zenbat pieza aurkitu ziren bertan?

◯ **500** ◯ **1200** ◯ **16000**

**22.** Zer dira materiale organikoak? Ezabatu organikoak ez diren materialak:

| | | |
|---|---|---|
| Egurra | Portuko zorua | Kaxak |
| Zeramika | Ontziak | Platerak |
| Metalak | Orratzak | Txanponak |
| Larrua | Gerrikoak | Zapatak |
| Haziak | Melokotoi hezurrak | Mediku tresneriak |

**23.** Material organizkoak ze inguru giro behar du mantentzeko?

◯ **Epela** ◯ **Haize kapsula**
◯ **Hotza** ◯ **Oso hezea, oxigenorik gabea**

**24.** Badakizu zer den **anaerobikoa**?

**BIDEOA IKUSI**

**25.** Egur ileraz osatutako zenbat plataforma zituen Oiassoko portuak?





**26.** Santa Elenako ermita, zer dago bertan?

**27.** Zein garaitako eraikinak daude bertan?

**28.** Zein urtetan aurkitu zniren bertako aztarnarik zaharrenak?

**29.** Errautsak gordetzeko zeramikazko ontzi aurkitu ziren. Badakizu zenbat?

○ 46 ○ 86 ○ 106

**30.** Erromatar garaian hildakoak lurperatu ala erre egiten zituzten?

**31.** Prozesiorik egiten zen? Nork hartzen zuen parte?

**32.** Hildakoaren errautsekin batera zer sartzen zen ontzian?

**33.** Zer da **hil mozorroa**?







**34.** Egingo al zenuke Oiasso hiriaren mapa bat?

**35.** Museoa gure iraganaren historia jasotzeko garrantzitsua dela uste duzu?

**Zer duzu gogoko museo batean?**

**Zer ez zaizu gustatzen?**

**TALDE-LANA:** Imagina ezazu 4.023.urtean gaudela, eta arkeologoa zarela. Zure hiriko oin azpian dagoena hasi zara industen... Zer uste duzu topatuko zenukeela? Eta arrasto arkeologiko hauei esker, nola deskribatuko luteke gure gaur egungo gizartea?